

XXXVI. Arratiako Maratoi Txikia Zeanuritik Igorrera maiatzaren 31n

10. orrialdea

Gontzal Mendibil Igorren

Gontzal Mendibilek, *Zure bihotzak nire begiak ditu* bere azken diskoaren kantuak eskeiniko ditu zuzenean Igorreko Lasarte Aretoan, hilaren 23an, iluntzeko bederatziretan. Disko hau, berrogei urte bete dituala eszenalekuetan ospatuko egin eban zeanuriztarrek eta bere lanik personalena dala dino Gontzal Mendibilek. **13. orrialdea**



Arratia Futbol Taldea Ohorezko Mailan datorren urtean

10. orrialdea

TOKIKOM

begitu

arratia ubide zeberio

230

2015eko maiatzaren 18a
hamabostekaria
www.begitu.org

Zeberioko familia eta baserrien historia



Liburuaren azala.

Kepa Perez Urrazak atzen lauhun urteotako Zeberioko bizilagunen zerrendak eta erroldak jaso ditu hamar artxibotatik eta liburu bitan argitaratu dau ikerketareen emaitzak.

Lehenengoan *Olabarrietako elizateko eta Zeberio Haraneko Auzokideen zerrendak* izenekoa, bizilagunen zerrendak emoten dauz; eta bigarrean, *Zeberio Haraneko sendien kokapena auzoka eta baserrika* liburuan bizilagunak euren etxeetan kokatzen ditu. Horretarako egileak Zeberioko harana 25 auzunetan banandu dau eta 40 urteko tarreak egin.

Liburu honeen helburua, normalean historia liburuan agertzen ez diran arbasoak anomimatutik ateratea izan da. Erabilitako dokumentuen fotokopiak egon ziran ikusgai udaletxean maiatzaren 7tik 9ra. **12. orrialdea**

Konserba fabrika Zeberion



Maskilu alkarteko kideak Zeberioko lokalean.

Maskilu alkartek Arratia-Nerbioiko produktuak poteetan sartzeko konserba fabrika bat zabaltzeko asmoa dauka Zeberion bagilean. Hamabost produktore agroekologiko batu dira proiektua aurrera aterateko eta horretarako behar dan makineria erosi ahal izateko dirua biltzeako, Goteo plataforman, proiektua finantzietan lagunduteko

aukerea dago bagilearen erdira arte.

Zeberioko Udalak eskeini eutsen lokala, lehen sektoreari lagunduteko daukan planaren barruan. Han, mermeladak egin eta tomatea, lekak eta beste barazki batzuk sartuko dabez poteetan, urtean zehar bertako produktu ekologikoak saldu ahal izateko. **7., 8. eta 9. orrialdeak**

ARRATIA

LHtik Institutura kideak ezetuta

Amaitzeaz dagoan ikasturte honetan zehar, Arratiako Gurutze Gorriak seigarren mailako eskola-umeentzako programa pilotu bat izan dau martxan. Aldaketa handia izaten da Institutura pasetea, batez be danak ezagunak diran eskola txikietatik datozen umeentzat.

Hori dala eta, Institutua bera ezetuteko eta beste eskoletako ikaskide izango diranak ezetuteko, hiru topaketa antolatu dabe Gurutze Gorriakoak. Lehenengoan, Institutua ezetutera joan ziran goiz pasa. Bigarrean, alkar ezetuteko jokoak egin ebezan Mundakara egindako txango baten. Atzenik, maiatzaren 23 eta 24ko zapatodomekan, datorren ikasturtean ikaskide izango diranak alkar ezetuten jarraituko dabe.

Ekimenak sano harrera ona izan dau irakasle, ikasle eta gurasoen aldetik. **5. orrialdea**

ARRATIA

Frackingaren kontrako konpromisoa

Hauteskundea kanpainan, Fracking Ez Arratia eta Fracking Ez Zeberio hautagaia frackingaren kontra behar egiteko konpromisoa sinatzeko eskatu deutsee. Konpromiso hau, EH Bildu, Ubide Arnasa, Artea Aldatuz eta Ubideko EAJ-PNVko alkategaia sinatu dabe. EAJ-PNVko beste alkategaia eta Lemoako PSEkoak, barriz, ez dabe sinatu. Datorren legealdian frackingaren behin betiko debekua alde pausua emoteko udalen laguntza behar izango dabela uste dabe Fracking Ez Plataformakoak. **5. orrialdea**

ARRATIA

Arreta Psikologikoa eraso matxisten biktimentzat Mankomunidadean

Bizkaiko Foru Aldundiak Arreta Psikologikoko Zerbitzua eskeiniko deutse Arratian, tratu txarren eta sexu eraso biktimari. Zerbitzua Mankomunidadearen egoitzan eskeiniko da bagilearen 1etik aurrera, astelehenetan 08:00etatik 15:00etara.

Beste alde batetik, homofobia, lesbofobia eta transfobiari aurre egiteko Berdindu programea aurkeztu dabe hezkuntza zentroetan. **6. eta 7. orrialdeak**

Decoración **IGORRE** Pintura

*Bono dendaraz

	BONDEX ADN SATINATUA 10 URTE 5 LT 89,00€*	BONDEX CLASSIC SATINATUA 5 LT Kolore guztietan 74,00€*	
---	---	--	---

** Dendara iragarki honez bazatuz opari bat eroango dozu (opariak bukatu arte)

Bidebarri, 1 · 48.140 IGORRE
Tlfnoa.: 94 673 64 01 · estitxuiturbelm@euskalnet.net

ZEURE BERBEA

Zein da herrigintzan egiteko zintzotasunaren prezioa?

Harrituta. Hori da berbea. Harrituta gelditu gara Arratiako Emairen jarrereagaz. Mankomunitadetik gazteentzat martxan ipini dogun programa bat gustetan ez jakiela eta euren proposamenakaz hobetuteko gugana berbetan etorri beharrean, "pankarta eta salaketa publikoa" erabilten dabez. Zergaitik? Euren helburua ez dalako herritarrai, kasu honetan gazteai, eskeintzen deusaguzan ekintzak hobetzea, helburu bakarra EAJ-PNVk kudeatutako Mankomunitadearen irudia kaltetzea dalako.

Arratiako 18 urtetik 25era bitarteko 6 gaztek -momentuz sei arrakasta badauka aurrerantzean gehiago- Arratiako enpresetan praktikak egitea dau helburu programeak. Aldundiaren Gaztedi programatik dirulaguntza bat jaso genduan eskualdeko gazteentzat ekintza desbardinak egiteko; gazteen arazorik larriena langabezia dala eta pentsau genduan guztiz beharrezkoa zala eurentzat lan munduagaz lehenengo hartu-emona eukiteko aukerea, ordainduta eta tutoretzapean emotea. Eta aukera hori inguruko enpresetan izatea be garrantzitsutzat jo genduan, azken helburua beka hori amaitukeran

enpresan lanean gelditzea dalako. Arratiako enpresak bertako gazteak ezagutu dagiezan aukera bat da. Guzur hutsa da Ernaik dinoana, enpresak negozioa egingo dabela jasotako dirulaguntzeagaz, dandana gazteentzat izango dalako. Esan behar da, programearen diru-baldintzak batzean dauzan Mankomunitade eta enpresen artean sinatu beharreko hitzarmena Gobernu Batzordean gogozan kide guztiok, EAJ-PNVkoak zein Bildukoak, ago batez onartu genduala. Ez pentsau programa hau Arratian asmatu dogun gauza bat danik, kolore guztietako beste hainbat eta hainbat herritan ipini da martxan, azken batean erakundeak kudeatzen doguzan guztion ardura nagusia bardina dalako: gazteen langabezi egoereari urtekerea emotea. Horretan gabiz buru-belari.

Edozein kasutan ulertu geinke beste eragileren batek ez ikustea begi onez martxan jarritakoa; hamaika ekimen jarri doguz martxan lau urtetan zehar eta beste kasuren batean be gertatu izan jaku, baina beti deitu izan gaitue berba egiteko eta beti alkatu gara proposamenak aztertzeko hobetzeko bidean. Inoz ez da gugana etorri dan inor berba egin barik gelditu. Sekula be ez. Horrek aberasten dau gure lana, hurbiltasunak eta herritarrak entzutea. Hain justu be BEGITU LABek eretxia agertu aurreko astean Mankomunitadearan Araluceko langileak eskatuta eureka batzartu ginan eta Arratiako LABeko ordezkari liberatu bat bertan egoan. Zergaitik ez euskun

esan ezer batzarraren aurretik edo ostean gai honeri buruz? Zergaitik ez eban aprobe txau aukerea euren eretxia zuzenean emoteko? Zergaitik hain larria bada eta horrenbeste kezkatzen badauz egoera ez deuskue ezer esan ondo baino hobeto dakienean gu beti gagozala entzuteko eta gure jarrerak aldatzeko prest? Zergaitik Ernaik eta LABek ez dabe ezelango protestarik egin programa hau martxan jarri daben Bilduk gobernatzan dituan herritan, esate baterako Bermeon, Sopuertan, Urduñan, Sopelan, Mallabian eta beste askotan? Zergaitik? Ba argi dago zein dan erantzuna, Bilduk eta ez EAJ-PNVk kudeatzen ditualako.

Gauza bera segun eta nork jartzen dauan martxan kasu batean txalotzea eta bestean kritiketea faltsua izatea da. Holan ez dago herria modu baikorrean eregiterik. Guk herrigintzan sinesten dogu, horretan gabiz; eta herrigintzan alkarregaz ekin gura badogu zintzotasuna guztiz beharrezkoa dogu. Eregitzaileak izatea beharrezkoa. Lehenengo berba egin behar da eta kasurik egiten ez danean, orduan protestau. Baina berba egiteko ahalegin txikiarik egin ez dauanak fundamentu bako salaketa publikoa erabili? Ez deusatz ezelango heldutasunik ikusten jarre-rra horri.

Gure asmoa ez da inondik-inora gazteen prekariedade bultzatzea, hori dinoanak ez dauka lotsarik eta herritarrai iruzur egiten deutse. Ez da zintzoa. Eta guzur baten oinarrituta ezin da ezelango tesirik eregi. Emairi zein LABeri zein beste edozein eragileri argi eta garbi esaten deusagu: guk alkarlanean gura dogu eregi Arratia eta alkarlana bultzatu izan dogu legealdi osoan, ez gara ibili alderdikierietan. Baina herrigintzan alkarlana erabili gura dauanak, zintzoa eta erakundeagazko leiala izan behar dau, faltsukerik alde batera itxita. Azken baten Mankomunitadearen kudeaketearen irudiari kalte egiteko asmoagaz benetako mina herriari, Arratiari, egiten jakolako. Benetan dinotsuet jakin gura neunkela zein dan Arratiako Emairi eta LABen zintzotasunaren prezioa.

JOSUNE GOROSPE ELEZKANO
ARRATIako UDALen
MANKOMUNITADEKO
PRESIDENTEA

ERETXIA

LUR OLABARRI

Irakaslea

Irakaslea naiz. Eta?

Irakasleok desprestijiau egiten ei gaitue gurasoak eta guraso ez diranak, zenbaiten ustetan. Hori dala eta, kanpaina bat bideratu da Hezkuntza Saileretik, irakasleon beharra eta izatea baloretako asmoz. Mugen faltaz eta sufriduten dogunaz eskolak emotean egiten da berba; eta, zelan ez, horrek urtenbidea behar ei dau. Holan babesten gaitue, honako kanpaina abiatu arazoz: "Irakaslea naiz (eta harro nago)". Ba, ni neu, behintzat ez naz bape be identifikauta sentidu kanpaina horregaz.

Berba politik erabilten dira hezkuntzan, aniztasuna, hezkidetzea eta bardintasuna besteak beste. Guztiok daukagu lekua eredu inklusibo horretan. Baina nik bestelakoa ikusten dot egunerokoan. Esango neuke gertatzen dana sintoma bat baino ez dala eta berba polit horreen guztian azpian, funtsean, ez dagoala bardintasunik ezta aniztasunaren benetako trataerarik be. Teoria eder horreen azpian, kalifikazio eta klasifikazio eredu dago, taldekatzearena eta desbardintzearena.

Autokritikea egin beharko geunke, norbere barruko gatazkak konpondu, akatsak onartu eta umiltasunaz jokatu. Baina, zelan konponduko doguz barruko gatazka horreek, eskolan sortzean diranak ekiditen baldin badoguz? Irakasleok, egunerokoan, maila txikian bizi dogu hezkuntza sistemeak bideratzen dauan eredu, podere hartu-emonarena, hain zuzen. Gu gara kalifikatzaile eta klasifikatzaile, guk geuk desbardintzen dogu, podere-etsuak garalako ikasleen gaitetik.

Horren ondorioz, ikasleak menpekotasunean biziten eta poderea erabilten ikasten dabe, eta, gerora begira, elikatu besterik ez dogu egiten onarpen beharra.

Lan polita da irakastea, baina ezin dogu gura dogun moduan eta gura doguna irakatsi, zer eta zelan egin agintzen deuskue eta. Ikasleakaz, guk geuk sufriduten dogun mendekotasuna proiektu esango dabe beharrezkoa dala edota beste aukerarik ez daukagula. Nik baietz uste dot, egin daikagula; ikasle kritikoak gura baldin badoguz, geuk be zalantzan ipini beharko geunke hezkuntza sistema eredu hau.

Guzur baten bizi gara eta ez gaitue kontuan hartzean. Horren adierazle da Heziberrigaz gertatu dana, adibidez. LOMCE ekiditeko edo biguntzeko asmoz Eusko Jaurlaritzak sortu dauan proiektuan ez gaitue, ez irakasle, ez ikasle, ezta gurasoak be aintzat hartu. Berba egin daiteke, beraz, hezkuntza komunitadeaz?

Nik ez dodaz ikasleak euskerazko mundu akademizista batera ekarri gura, ezta konsumismoan oinarrituriko gizarte pobre batera be. Nik, alkartasunean hezitako ikasleak gura dodaz, sormenez beteak, kritikoak eta gatazkai bildurrik ez deutseenak. Bidezko eta benetazko balioetan oinarritutako hezkuntzaz berba egin beharko geunke danon artean eta herritar legez, gura dogun hezkuntza ereduaren gainean eztabaidatu, hausnartu eta ebatzi. Nik neuk, irakasle gisa, ez dot uste gurasoak desprestijietan nabarik, bai, ordea, sistema antolamentu honek.

Zure eretxia agertu gura badozu, Zeure Berbea atala zabalik daukazu. Ez da komenidu makinazko 15 lerro baino gehiago idazterik gutunotan. Izena, telefonoa, helbidea eta Nortasun Agiriaren zenbakia agertu beharko dira. Laburtu behar izan ezker, BEGITUK eskubidea dauka horretarako. Gutunak hona bidali: Zertu Kultur Elkarte. Herriko plaza, 24. 48.142 Artea edo begitu@topagunea.com helbidera.

GEURE BERBATEGIAREN LEIHOTXUA

ANGEL LARREA ETA JUAN REKALDE

Podésuz



Ekinaren ekinaz, behin eta barriro, kantidade handiaren ondorioz eta antzeko esangurakaz erabilten dogu podésuz (podésus, agoskatuta), beti be genitibo (noren) kasua aurretik daroalarik. Esate baterako: "Diabetisa dala-eta, egun santu guztietan (insulina) indezinoaren podésuz bizi behar!". Hainbat era desbardin jaso doguz Arratian berba hau esateko: podésuz, podasuz, poderosuz, poresuz... Batuaz, poderioz esaten da.

LUMATUTEN



IDOIA EHIZMENDI

Garaipena

Paterak "cayukoak" bihurtu ziran sasoiaren joan nintzan lehenengoz Kanaria irlalara. Tenerifen, La Palmarako itsasontzia hartu genduan irla txiki hau ezetuteko gogoz. Ferryan ginala, kaia aldean mobimentu ezohikoa sumatu genduan, Gurutze Gorriko anbulantziak eta Guardia Zibilen patrolak kaia beteten egozan. Berehala imajinatu genduan etorkinak espero ebezala eta urduri ipini nintzan zein egoeratan helduko ete ziran pentsatuz. Handik gitxira, ferryaren albo baten agertu zan poliki-poliki itsasontzi txiki eta koloretsua, gizonezko baltzak bidaiari ebazala. Poza eta nekea antzematen jakien eta lurra zapaltzen ebenean garaipen keinuak egiten ebezan. "Gixarajoak" pentsetan neban nik, barriro be kanporatuak izango zirala eta egindako biaje gogor horrek ez eutsiela garaipen handirik ekariko jakinda.

Gure itsasontzian jente guztia pilatzen zan kaiari begira. Ni be

begira nengoan, malkoai eutsi ezinik.

Atzen asteotan mila inguru etorkin hil dira Mediterraneo itsasoa kurutzatu guran, gehienak, errepre-sino eta gerrai iges egiten deutsee.

Bideo bat heldu jota oso irudi krudelakaz. Patera bat ikusten da ehun bat lagunegaz, danak baltzak, itsasontzi handi batera hurbilduz. Istripua aurreikusita, batzuek itsasora egiten dabe salto, beste batzuk bertan mantenduten saiatzen dira txalupa irauli dan arte. Itsasontzian "eszena" grabatu eta komentetan dabe, eta handik denpora batera, flotagailu batzuk jaurtitzen ditue, bestelako erreskate esfortzurik egin barik. Bitartean, behean, itsasoan puntu asko ikusten dira mobimentu desesperatuak eginaz, pixkanaka desagertzen doazen arte. Flotagailua lortu daben bakanak itsasontzira igoten dira soketatik.

Zur eta lur gelditu naz, hildakoak zuriak izango balira ziurrenik bizirik egongo zirala pentsatuz, eta orduan ulertu dodaz 2006ko keinuak, holango egoeran itsasoa zeharkatzen bizirik heldzea garaipen handia da eta.

ZERTZEAN



ITSASO BENEDICTO

Gitarrajolea



BEGI TXINDORRA

Maiatza be heldu da, eta Saharar herria apirilaren amaiera noz heldu itxaroten egon da, NBEaren ebazpenaren zai eta barriro be itxaropen guztiak zapuztu deutseez. Mendebaldeko Saharako herritarrentzat ez da ezer aldatu.

Bitartean, azken 40 urteetan lez, Saharako andrak, kanpamentuetakoak zein lurralde okupatuetoakoak, kongresu bat antolatu eben, hezkuntzaz, osasungintzaz, herri lez jagokiezan eskubideez, autodeterminazino eskubideez... Eta, kongresuko egunetako baten munduko leku desbardinetatik heldutako andra askogaz batera apirilaren 4an Arratiako andren alkartasun aldarriak Marokok eregitako Lotsaren Harresiaren parera ailegau ziran, ohialetan marraztuta eta josita. Ez dago munduan harresi nahikorik saharar andra eta gizonen ametsakaz amaituko dauanik. Eta han ohikatu genduan lez: Sahara hurra!

Karmele Beobide



Gorosti Lorategien Diseinu eta Gauzatzea
Ureztaketa instalazioa
Mantenua eta Inausketa

LORAZAINTZA

Bidosola Industrialdea E2 Pab. 48.142 Artea
Tel: 94 673 96 34 Faxa: 94 673 96 88
gorosti@gorostiscl.com

agoa Ortodontzia
Inplanteak
Estetika

hagin klinika

Marina Urigoitia Aldekoa
Odotzargoa

Bidebarri 1. behea
48140 Igome-Blokaia
T. 94 631 50 39
Hilabete Zerbateko 900
R.P.S. 21/06

FISIOTERAPIA Grupo Sasoibide
Balneario Areatza

Tania Fernandez Santiago
COL. 1718

www.gruposasoibide.com Tel.: 94 657 54 50

ARRATIA

Institutuan hasi aurretik, alkar ezetuteko hirugarren topaketea egingo dabe maiatzean

Erredakzioa

Arratiako Gurutze Gorriak proiektu pilotu bat ipini dau martxan aurten seigarren mailako umeai Institutuan hasteak suposatzen deutesen aldaketea erretzuteko. Izan be, danak ezagunak izatetik ikasle gitxiko eskoletan, Arratia Institutu handira pasetan dira umeak. Ikasleok, euren edadeko beste herrietako ikaskide izango diran neska-mutikoak eta Institutua bera ezetuteko aukerea izan dabe aurten martxan ipini dan programa honeri esker.

Ikasturtean zehar hiru topaketa antolatu dabez. Lehenengoan Institutua ezetutera joan ziran eta han alkar ezetu, Institutua ikusi eta Hektor Rodriguez Institutuko zuzendariagaz pasau eben goiza. Hurrengo topaketan, Mundakara joan ziran egunpasa eta ezagutza jolasak egin ebezan alkar ezetuteko. Atzen topaketea maiatzaren 23an izango da eta hurrengo ikasturtean ikaskide izango diranak egun bi pasauko dabez alkarregaz.

Programa honetan 40 ume inguruk hartu dabe parte eta Gurutze Gorriako zazpi edo zortzi boluntariok. Amaiur Irazabal eta Urko Yurrebaso Igorreko Inazio Zubizarreta eskolako ikasleak parte hartu dabe aurreko saio bietan. "Lagunak egin doguz, gustau jaku eurekaz egotea, esperientzia polita izan da. Ezetuteko jokoak dibertigarriak eta politik izan dira", eta maiatzeko topaketara joateko urduri eta gogotsu dagozala dinoe.

Arratiako eskola guztiak eta Zeberioi erabili dabe programa hau. Baita Lemoako eskoleak be, bertan DBH euki aren. "Arratia osorako da programa hau. Arratian herri desbardinetaoak ez gara ezetuten eta alkar ezetutea be bada

helburu bat" dino Xabier Pastor Gurutze Gorriako Gazte Teknikariak.

Lehenengo egunerako tresnak

Ikaskideak eta Institutua ezetuta, lehen egunari trankilago aurre egiten deutesie umeak eta gurasoak. Idoia Zuloaga Esku Hartzeko Teknikariak argi dauka momentu horreek pasau behar da. Mundua holangoa da eta ikasi egin behar dabe ahalik eta arinen, errealidadeari aurre egiten. Baina, bueno, goazen emoten tresna batzuk hori kanalizetako!"

Programa hau oso ondo hartu dabe eskolak be. "Ekimena beharrezkoa eta oso garrantzitsua da. Ikasleentzat oso pausu garrantzitsua da institutura joatea eta dagoeneko toki aldaketak, irakasle aldaketak, metodologia aldaketak... dakarren urduritasunari ikasle barrien ezagutza gehitu behar jako. Gurutze Gorriak pausu hori erretzu gura izan dau eta ekimen honegaz asmatu dabela uste dogu" dino Ainara Olazabalaga Dimako eskolako zuzendariak. Gurasoai be idea ona iruditu jakie, "umeak seguruago" joango diralako Kontxi Basaguren programan parte hartu dauan ume baten amaren esanetan.



Alkarregaz proiektuko ikasleak.

ARRATIA

Frackingaren kontra behar egiteko konpromisoa eskatu deutsee hautagaiak Fracking Ez Arratiakoak

Erredakzioa

Fracking Ez Arratia, eskualdeko hautagaiakaz batu da frackingaren gaineko eretxia eskatzeko. Arratia mailako EH Bilduko zerrendetako parte hartzaile guztiak, Ubide Arnasa eta Arteako Aldatuz herri plataformakoak, eta Ubideko EAJ-PNVko alkategaiak frackingaren kontra behar egiteko konpromisoa sinatu dabe. EAJ-PNVko beste alkategaiak, eta PSEko Lemoakoak, barriz, ez dabe konpromisoa sinatu.

Fracking Ez Asanbladak, datozan Udal eta Batzar Nagusietarako hauteskundeetara aurkeztuko diran hautagaiakana jo dau jakiteko eta jakinarazteko zer eretxi daukien hautagaiok haustura hidraulikoaren aurrean, eta Asanblada horren parte dan Fracking Ez Arratiak be eskualdeko hautagai gehienai kontra agertu daitezala eskatu deutsee.

Plataformakoak hautagai batzuek aurrez aurre batzartu dira, Igorre, Artea, Arantzazu eta Ubideko hautagaiakaz berbarako. "Garrantzitsua deritxagu argi esatea ez dogula alderdi politikorik ordezkatzin" dinoe. "Fraking Ez Arratiatik haustura hidraulikoaren aurkako konpromisoak sinatu dituen horreei gure esker ona helarazo gura deutsegu, eta espero dogu datorren legealdian ustiaketa mota honen behin betiko debekuaren alde pausuak emongo dituela, ziur gagozalako euren laguntza behar beharrezkoa izango dogula eta" dinoe prensa ohar batez.

Ekimen legegilea

2013 eta 2014 bitartean, Fracking Ez Asanbladak Herri Ekimen Legegile bat jarri eban martxan parlamentuan, ustiaketa mota hau egitea baimentzen dituen legeak, eztabaidatu eta aldatzeko asmoz. 104.000 sinadura batu ziran EAE osoan eta historiako bigarren sinadura bilketa handiena izan zan, antolatzaileen arabera. Arratian 1.200 sinadura bildu ziran. Orain dala hilabete batzuk hasi ziran eztabaidak Gasteizko parlamentuan, baina momentuz EAJ-PNV eta PP alderdiak ekimen legegilea hauteskunde osterara atzeratu dabe. Frackingez.org webgunean eztabaidearen jarraipena egiten da.

Frackingaren kontrako akanpadea

Garagarrilaren 13tik 19ra Subillana-Gasteiz Arabako udalerrian, Europa mailako Frackingaren kontrako mobimentuak. Aukeraturtako lekuak pisu sinboliko handia dauka, Euskal Herrian zabaldu gura daben lehen putzuaren kokapena da berau eta.



Fracking Ez-ekoak Gorbeian.

A R R A T I A

Zu izan zaitekez

Arratiako Enpresetan Praktikak egiteko 6 Beken Programea

Gaztedi Arratia Hitzarmeneko 8 udalerrri parte-hartzaileetako bateko herritarra zara? 18 eta 25 urte bitartean daukazuz eta lanbide-heziketako edo unibersidadeko tituluduna zara? Hau da lan-munduagaz lehenengo hartu-emona eukiteko aukerea, ordainduta eta tutoretzapean.

Gehiago jakin gura dozu? Jaso informazioa Arratiako Enplegu eta Gazteria Zerbitzuetan.

• Izena emoteko epea: **maiatzaren 20tik bagilaren 10era arte.**

Arteako LANBIDEn Zentro Laguntzailera
(640 410 545 tel. aurretik hitzordua)



2015eko
BEKAK



G A Z T E D I

mankomunitatea.ariatia@bizkaia.org
Tel. 94 631 17 17

ARRATIA

Eskoletan bullying-a saihesteko Berdindu programea aurkeztu dabe

Mireia Cifuentes eta Naiara Loy.

Erredakzioa

Arratiako Udalen Mankomunidadearen Bardintasun Zerbitzuak, Berdindu programearen aurkezpena antolatu eban maiatzaren 6an Arratiako hezkuntza zentroetan. Mankomunidadeak kanpaina bat egin dau orientazio sexuala eta genero diskriminazioaren kontra Homofobiaren Kontrako Nazioarteko Egunaren harira.

Maiatzaren 17a Homofobia,

Lesbofobia eta Transfobiaren aurkako Nazioarteko Eguna da. Hori dala eta, Mankomunidadeak adierazpen instituzionala onartu eban, bertan orientazio sexuala eta genero identitatean oinarritutako diskriminazioaren aurkako burrukan daukan konpromisoa berretsi eban. AUMko Bardintasunerako Ordenantzea bide horretatik doala adierazo dabe. Honen helburua andren eta gizonen arteko bardintasuna lortzea eta identitate eta sexu aukeren aniztasuna

ahalbideratzea da Arratian.

Bardintasun Zerbitzuak Berdindu programearen aurkezpena antolatu eban maiatzaren 6an Arratiako hezkuntza zentroentzat. Berdindu Eskolak Programea Eusko Jaurkitzak martxan ipini eban orain dala urte bi, eta arreta eta orientazioa eskeintzen deutse diskriminazioa edota bullying homofobia, lesbofobia eta transfobia daben eskolai. Gainera, laguntza teknika eta oinarriko prestakuntzea be eskeintzen deutse zentroai, sexu eta genero aniztasuna lantzeako.

Lemoako aste kulturean

Maiatzean Lemoako Aste Kulturala dala aprobetxatuz, "Aniztasunaren alde, homofobiari ez!" izeneko berbaldia antolatu eban Bardintasun Zerbitzuak maiatzaren 13an, publiko orokorrari zuzenduta. Han, Berdindu Zerbitzuko Mireia Cifuentes eta Naiara Loy kontzeptuak azaldu eta diskriminazioa ahalbidetzen dabezan estereotipoen barri emon eban. Hizlariak defendidu eban, bullying-a eta diskriminazioagaz amaituteko, heterosexualitate unibersalaren presunzioagaz amaitu behar dala eta desiraren aniztasuna plazara atera, "ikusten ez dana, ez da existiduten" eta.

ARRATIA

Batzen behar egiteko trokelgintza ikastaroa Zulaibarren**Erredakzioa**

Atzen urteotan legez, oraingoan be Trokelen Doitzaile lanbidera zuzenduta dagoan trebakuntza ikastaroa antolatu dabe Batz, S Coop., Lanbide eta Zulaibar Ikastetxeak alkarlanean.

"Belaunaldi barriari atek zabalteko asmoz, Batz S. Coop.eko trokelgintza negozioan personak trebatuz, profesional adituak prestatu gura doguz" dinoe Batz-etik. Aurreko ikastaroetan parte hartu eban ikasleen eta Batzeko beharginen esperientzia positiboa izan zala dinoe.

Izena emoteko

Ikastaroan izena emoteko epea, maiatzaren 15ean hasi zan eta 26ra arte egongo da zabalik Lanbideko bulegoetan. Ikastaroaren erreferentzia: 17698 da.

Parte hartzeako bete behar diran eskakizunak, Lanbiden apuntatuta egotea eta Goi Mailako Lanbide Heziketa izatea dira. Aintzat har-

tuko da LH II metala, mekanizazio bidezko produkzioan GMHZ eta produkziozko fabrikazio mekanikoko produkzio programazioan GMHZ ikasketak izatea.

Maiatzaren azkenengoko astean, Zulaibarreko ikastetxean izango da hautaketa prozesua.

Kontratetako konpromisoa

Bagilearen 4an hasiko da 5 hilabetetako trebakuntza teoriko-praktikoa. Hau egin ostean, parte hartzaileen % 60a behintzat kontratetako konpromisoa hartu dau Batzek.



Zulaibar.

BATZ

www.batz.eus

GURE PROIEKTUAN PARTE HARTZEKO AUKERA

5 hilabeteko trebakuntza teoriko-praktikoa trokelen doitzaile lanbidean
%60 kontratatzeako konpromisoa

Apunta zaitez

Lanbide
Euskal Epelegu Zerbitzua
Servicio Vasco de Empleo

ZULAIBAR

ERAIKI DAIGUN ARTEA ALKARREGAZ

EMON BOTOA

ALDATUZ HERRI PLATAFORMA

LEHENDAKARI LITTEKO KANTAN
%15eko DESKONTUA

A

LEHENDAKARI
basolo Emaid
ENAREN ADMINISTRAZIOA S.A.
Abokatuak

☎ 620. 57.86.04
✉ aslerabasolo@hotmail.com
📍 Bilbao-Zeanuri

Igorren
ARKITEKTOA

Aitzol Aurrekoetxea Pujana

Lehendakari Agirre 23, behea
aitzol@coavn.org · 675 705 111

ZEBERIO

Arratia-Nerbioiko produktuen konserbak egingo ditu Maskiluk

Erredakzioa

Zeberioko Udalak bultzatutako Nekazalgunea programearen barruan, Arratia-Nerbioiko hamabost bat baserriarrek auzolanean, konserba fabrika bat ipiniko dabe mar txan bagilean. Sasoiko barazkiak, frutuak eta perretxikoen konserbak egingo dira han artisau eran eta osasun eta kalidazeko berme guztiakaz.

Proiektua aurrera aterateko *crowdfunding* kanpaina bat ipini dabe mar txan baserriarrek azpiegituren balioaren zati bat ordaintzeko. Bagilearen erdira arte lagundu daiteke proiektua kofinantzietan, Goteo plataformaren bidez, <https://goteo.org/project/>

maskilu helbidean.

Elikadura burujabetza

Maskilu Kontserbak-en parte hartzean daben baserriarrek frutu eta barazki ekoizle txikiak dira eta tresna honen bidez, konsumo taldeak eta plazetako otzarak osotuta daukie helburu. "Honako espazio honek sasoiko barazkiak eta frutuak urte osoan zehar konserbau gura dituan edozein lagunentzako balio dagiala gura dogu, bai autokonsumoko ortuetakoak, bai kolektiboak eta bai merkadurako ekoiztuak diranak be. Maskilu Kontserbak ikuspegi baserriar eta agroekologikotik eraldaketarako espazioa izan gura dau, eredu industrialetik aparte" dinoe proiektuko partaideak.

ARRATIA

Nepalera laguntza bialduteko Eleizako kontuak

Erredakzioa



Nazinoarteko Caritasen bitartez laguntza bialduko dau Arratiako Eleizak Nepalera. Dirua, parrokitan dagozan kutxetan sartu daiteke edo hurrengo kontu korranteetan, "Nepalera laguntza" ipinita: FIARE Banku Etikoak: ES85 1550 0001 22 0000992222. BBK-Kutxabank: ES85 2095 0119 96 3800121037. Laboral Kutxa: ES25 3035 0134 48 1340555555. laCaixa: ES93 2100 0732 21 0200220296. BBVA: ES96 0182 1290 30 0000295556. Rural Kutxa: ES85 3008 0266 51 2515538920.

ARRATIA

Arreta psikologikoa eraso sexisten biktimai

Erredakzioa

Bizkaiko Foru Aldundiak Arreta Psikologikoko Zerbitzua eskeiniko deutse Arratian, tratu txarren eta sexu erasoen biktima izan diranai. Bizkaiko Foru Aldundiak Bizkai osoan zabaldu gura dau arreta zerbitzu hau eta apirilaren 29an, Arratiako Mankomunitateak BFAko Gizarte Ekintza Sailagaz lankidetzaz hitzarmena onartu eban arreta psikologikoa bertan emoteko.

Zerbitzua Mankomunitatearen egoitzan eskeiniko da bagilea-

ren 1etik aurrera, astelehenetan 08:00etatik 15:00etara. Progama honen barruan, banan-banako arreta psikologikoa, babeserako tratamenduak eta psikoterapia, kasuen jarraipena eta beste zerbitzuakazko koordinazioa eskeiniko da.

Hasikera baten astean zazpi ordu emongo badira be, beharrezkoa ikusi ezker ordu gehiagotan zabaldu leiteke zerbitzua. Lankidetzaz hitzarmenak, Arratiarako gehienez 14 ordu aurrekusten dauz zerbitzu honetarako.



Maskiluko lokala Ermitabarrin.

ARRATIA

Bertoko produktuen konsumoa

Erredakzioa

Arratian sano kalidate handiko jateko produktuak produziduten dira. Gure irakurleak produktu horreek konsumiduten dabezan jakin gura dogu oraingoan. Horregaitik hauxe da gure itauna:

Arratian produzidutako produktuak jaten dozuz?

Erantzun posibleak:

- a) Bai, ortua daukagu.
- b) Bai, dendetan, azokan, ba-

serritarrai... erosita.
c) Ez.

Herrien arteko bideak erabilten dabez gure irakurleak

Aurreko inkestan, ea herrian oinez ibilteko edo herri batetik bestera oinez joateko bideak erabilten ete eben itaundu geuntsen gure irakurleai. Erantzun daben guztiak batzuetan edo sarritan erabilten dabezala esan dabe.



Adi Arratia!

Orain andrazkoentzako erropak be bai

946.319.008
658.195.031

Sartu gure Facebook-eko orrian
www.facebook.com/galanta.lenceria

Agirre Lehendakaria 23
48.140 Igorre
galanta@hotmail.es

GALANTA
zure barruko arropa

M. JOSE
barrutik janzten zaitu



www.facebook.com/galanta.lenceria

MASKILU. OLATZ ETXEBARRIA ETA JON URIARTE

"Orain barazkiak eta mermeladak, gero kremak eta umeentzako poteak"

Maskilu alkarteko partaide dira Olatz Etxebarria eta Jon Uriarte. Crowdfunding bidez konserbak egiteko makinea erosteko dirua lortzean badabe, bagilean konserbera barri batek zabalduko deutsez ateak inguruko baserritarri.

Erredakzinoa

Maskilu: maskillo, maskelu, maskillue (Artea), maskilue, maskélue iz. Esnea egozteko erabilten dan ontzi kirtendun hau larazutik eskegita egoten zan behesian.

Arratia Inguruko Hiztegia

Etxebarria eta Uriarte proiektuagaz guztiz ilusionauta dagoz epe luzerako planak egiten. Olatz Etxebarria Zeberioko Santa Kurtze auzoan dauka baserria. Esnetik-erako egiten dau behar, gaztaiak egiten, baina fruta-arbolak daukaz eta mermeladea egin gura dau. Jon Uriarte igorretarrak, barriz, batez be barazkiak ekoizten dauz.

Zeintzuk hartzean dozue parte Maskilu alkartean eta zer ekoizten dau bakotzak?

Jon Uriarte: Hamabost produktore ekologiko gara, gehienak barazkiak ekoizten doguz.

Olatz Etxebarria: Nik gaztaiak egiten dodaz Esnetik-en, eta ortua

eta fruta-arbolak be badaukadaz. Mermeladea egin gura dot.

J.U.: Barazkiak eta mermeladak sartu gura doguz poteetan, Galdakao inguruko batzuek, barriz, zizak eta onddoak.

Proiektu hau gauzatzeko urtebete baino gehiago behar izan da. Kontau apur bat zein izan dan prozesua.

O.E.: Lehenengotik Zeberioko Udala ipini zan kontaktuan gugaz esanez lehenengo sektorea bultzatzeko zerbaist egin gura ebala. Esan euskuen lokal hau libre egoala eta ea zeozer egin gura genduan.

Idea zelan sortu zan?

J.U.: Idea hor egon da. Guk pro-



duktuak Jaki On-era eroaten doguz poteetan sartzeako, eta gura genduan konserbera bat eukitea Arratiatik hurbil. Jaki On Leintz Gatzagan dago. Orduan, hamabost produktore juntau ginan eta koserbera egiteko beharrean hasi

ginan: diru apur bat ipini genduan eta orain gabiz diru bila autoklabea ipinteko. Autoklabea da presino lapiko handi bat poteak eta esterilizetako.

Maskilu alkartea baegoan orduko?

Arratiako Musika Eskola

IKASLE BERRIEN MATRIKULAZIOA

Epea: maiatzean

- Infante kalea, 2. Artea
- Astelehen, asteazken eta ostiralak

10:00etatik - 13:00 arte

Tlfnoa: 94 631 73 52

- *Matrikulazioa posta elektronikoz:
arratia.musikaeskola@gmail.com

- Arratsalde, zentroetan

O.E.: Ez, ez. Baina produktoreak ezagunak ginan. Hasi ginan berba egiten eta...

J.U.: Udalak lur batzuk banandu dauz herrian produktu ekologikoak ekoizteko eta holan hasi ziran elikadura burujabetzaren aldeko Basortuko nekazari agroekologikoak eta beste batzuk. Gero udalak beste gazte batzuei be itxi deutez beste lur batzuk negutegia ipinteko. Eta beste gazte bateri beste lur bat itxi deuto.

Lur horreek udalaren Lur Funtsakoak dira ezta? Alokairuan hartuta hamar urterako alokairu txiki bat ordainduta. Beraz, Udalak Lur Funtza eta konserba fabrika honetarako lokalagaz lagundu dau.

O.E.: Bai. Lehenengo sektorea bultzatzeko planaren barruan dago, lurrak ziran parte bat eta beste parte bat proiektu bat egitea zan. Konserba fabrika izan eitekean edo beste zeozer. Baina guk konserberea egin dogu.

Maskilukoak bakarrik erabiliko dabe hau?

J.U.: Ez. Zabalik gagoz edozein baserritareri. Sagar pilo bat edo edozein produktu euki eta poteetan sartu gura badau...

O.E.: Herrikoak edo Arratiakoak edo... bardin da.

Beraz, momentu puntual baten edo jarraian erabili leiteke, ezta?

J.U.: Idea da jarraian erabiltea. Ahal bada onena izango litzateke beti zabalik eta funtzionetan egotea.

O.E.: Uste dogu udan egongo dala behar gehiena.

J.U.: Udan eta udagoienera: mermeladak egiteko sasoiak. Jente asko dago mermeladak egiteko. Neguan eta orain ez dago ezer poteetan sartzeako. Sei hilabetez bai egongo dala topera.

Zelan doa crowdfunding-a?

J.U.: Oso ondo. Bastante diru dago baina ondino behar dogu bastantegiago. Gitxieneko diru bat ez badogu lortzean 40 egunetan, 4.700 euro inguru, dirua atzera itzultzen jakie dirua ipini dabenari. Baina nik uste dot gitxienekoa lortuko dogula. Bagilearen 14an amaitzen da. Ordurako jaso behar doguz 4.700 euro gitxienez eta gehienez 8.150. Autoklabeak 8.150 euro inguru balio dauz. Kofinantzietan lagunduteko aportazino txikiena 10 eurokoa da eta handiena 350 eurokoa.



O.E.: Hasikera baten pentsau genduan makinea Txinatik ekartea merkeagoa zalako, baina gero esan genduan ezetz.

J.U.: Arazoren bat euki edo apurtu ezkerro, nor etorriko da Txinatik hori konpontzen? Orduan Kataluniako enpresa batetik ekarriko dogu.

Dana dala, gastu asko, ezta? Errentagarri aterako da?

J.U. eta O.E.: Apustua hori da.

J.U.: Baina pentsetan dogu jentea kanpotik badator, bai ahal izango dala mantenidu. Urtearen arabera izango da, baina pentsetan dogu baietz.

Eta gero umeen jatekoagaz poteak egiteko proiektua daukagu. Daukagun produktua atera gura dogu eta daukagun produktuagaz

hori egiten da. Egin beharko dogu berba ea horreek produktuak aterateko kooperatiba bat egingo dogun ala zelan ekingo deusagun. Dana dala, hasikera baten bakoetak bere produktua ipiniko dau.

O. E.: Orain hasi gura dogu gauzarik errezenak egiten: tomateak, lekak... eta gero apurka-apurka hasiko gara sukaldatzen. Kremak egiten, barbarako.

Bakotzak sukaldatuko dauz bere produktuak?

J.U.: Hemen behargin bat edo bi egongo dira, baina bai, idea da bakotzak bere produktuak sukaldatzea. Behargin horreek egongo litzatekez Maskilurentzat beharreen soldatapean. Hasikera baten bat hasiko da. Baina momentuz autoklabea erosi behar da eta konserberea zabaldu.

Zelan ikusten dozue etorkizuna?

J.U.: Uste dot gero eta hobeto joango dala, jentek gero eta gehiago baloretan daualako bertako produktua. Bertako eta sasoiako produktua, baina batez be bertakoa. Dendetan be, gero eta gehiago marketan dabez zein produktu diran bertakoak. Pentsetan dogu lehen sektoreak hobera egingo dauala.

ARRATIARROK
garaile!

Igor Menika - Janire Ansotegi - Beñat Anzola - Zedarrri Jauregi - Asier Garcia - Nekane Intxaurtza - Igor Etxaniz - Saioa Elejebarrrieta
ARANTZAZU BEDIA IGORRE ZEANURI AREATZA DIMA ARTEA LEMOA

EMAN
BOTOA
ehbildu

FUTBOLA

Arratia txapeldun!

Ainhoa Duñabeitia

Bai atzenean bai, Arratia Futbol Taldea Ohorezko Mailako taldea da eta ligako txapelduna. Zapatuan, hilak 16, izan zan ospakizun eguna.

Egun horretan, 16an, etxean euki eben partidua San Ignacio taldearen kontra. Errez irabazi eben neurketea, 4 gol egin ebezan beilegiak eta San Ignaciok bakarra. Partidu itzela eta



giro ezin hobea Urbietan egoana. Liga amaitzeko neurketa bat baino ez da falta baina arratiarrak badaukie zer ospatu daborduko, Ohorezko Mailara igoera eta ligako lidertza. Zorionak Arratia Futbol Taldeari.

Andrazkoak Euskal Kopan

Andrazko taldea oster, liga amaitu ostean, beste lehiaketa baten sartuta dago, Euskal Kopan, hain zuzen. Final zortzirenak jokatu eben Heraniren aurka Zubietan XXI zelaian. Irabazten hasi ziran norgehiagokea bardinketan amaitu zan. Atzenengo emoitzea binako bardinketea. Buel-tako partidua etxean jokatu dabe hilaren 23an.

ERRUGBIA

Arratiko Zekorrak RTk 25 urte bete ditu

Ainhoa Duñabeitia

Arratiko Zekorrak liga alde batera itxi dabe eta klubaren 25. urteurrena ospatuteko jaia antolatu-ten dabiz.

Zekorrak 25 urte beteten dabez aurten eta hori ospatuteko egun guztiko jaia antolatu dau taldeak maiatzaren 23rako. Egun guztian zehar ekintzak egongo dira hurre-ratu gura daben guztientzat: ume, gazte, zein nagusientzat.

Goizean lagunarteko partidu bat jokatu da San Txisme zelaian, eta ondoren bazkaria egingo dabe eskoletako aterpean. Bazkarirako tiketak ohiko tabernetan dagoz salgai, 15 eurotan. Bazkari ostean herritik zehar kalejirea egongo da musikaz lagunduta.



MARATOI TXIKIA

Maratoi Txikia maiatzaren 31n

Erredakzinoa

Arratiako XXXVI. Maratoi Txikia hilaren 31n izango da. Edade guztietako kirolariak hartzean dabe parte proba honetan, edade bakotxari egokitutako ibilbide bat eginaz. Igaz Gotzon Solaeigik eta Iraia Garciak irabazi eben nagusien proba.

Nagusiak Zeanuri eta Igorre arteko 11 km.ak egingo dabez. Urtekerea Zeanurin izango da 10:15ean eta izen emotea Igorreko kiroldegian 08:45etik 09:30era edo Zeanurin bertan

09:30etik 10:00etara. 1998tik 2002ra bitartean jaiotakoak, Artea-Igorre ibilbidea egingo dabe Arteatik 10:25ean urtenda. Izen emotea Arteako plazan izango da 09:45etik 10:00etara. 2003 eta 2006 bitartean jaiotakoak Dimatik Igorrera joango dira galapan. 10:00etan urtengo dira eta izen emotea Dimako plazan izango da 09:15etik 10:00etara. Gazte-xoenak, 2007an edo berandua-go jaiotakoak, Igorreko eskoletan zirkuitu bat egingo dabe. Izena eskolako patioan emon behar dabe 09:00etatik 09:55era.

AZKOREA

Aitzol finalera

Erredakzinoa

Maiatzaren 17an, Aitzol Atutxa dimoztarrak Banakako Urrezko Aizkorako Eusko Label Txapelke-

tako finalerako txartela lortu eban, Galdakaon Rekondori irabazi eta gero. Errez lortu eban pasea Arratiakoak. Finala bagilearen 6an izango da Azpeitin. Aitzol Atutxa eta Larretxea egongo dira finalean. Eurekaz batera, hilaren 25ean, Azurmendi eta Erasunen arteko neurketan, irabazle suertatzen dana be izango da.

MENDIA

Zeberio harana inguratzen dabezan mendietatik ibilbidea

Erredakzinoa

Austarri Mendi Taldeak Zeberio Mugarik Muga antolatu dau maiatzaren 23rako. Ibiltariak Zubialden 07:15ean edo Harritzozubin

07:30ean batuko dira, 36 km.ko eta gitxi gorabehera hamar orduko ibilaldiari ekiteko. Zeberio ingurartzen daben sei mendi tontor egingo dabez ibilaldi gogor hau Harritzozubin amaituteko.

Ugao eta Zeberio artean dagoan zubia da Harritzozubi. Handik abiatuta ibilbide hau egingo dabe partaideak: Harritzozubi, Kortaxi auzunea, Untzuetan (765 m.), Arrugaeta (661 m.), Goikogane (630 m.), Garaigorta (665 m.), Bikotz Gane, Laureta, Sarasola, Argiñao auzunea, Mandoia (634 m.), Upoko landak, Artanda (544 m.), Saldarain auzunea eta Harritzozubi.

<p>Arratiako Harri Luastotxoak</p> <p>Gure ikastetxeak</p> <p>Euskalduna kalidarezkoa herrikoia</p>	<p>J.B. Eguzkiza Meabe HI Tel.: 94 631 32 28 Lemoa</p>	<p>Ikastola Arratia HI Tel.: 94 673 90 65 Artea</p>	
	<p>Ugarana HI Tel.: 94 631 55 32 Dima</p>	<p>Arratia BHI Tel.: 94 673 62 37 Igorre</p>	
	<p>Zubialde HI Tel.: 94 648 06 82 Zeberio</p>	<p>Areatzako Herri Eskola Tel.: 94 673 90 93 Areatza</p>	
	<p>Zeanuri HI Tel.: 94 673 93 33 Zeanuri</p>	<p>I. Zubizarreta HI Tel.: 94 673 60 22 Igorre</p>	

Okindegia
+ Ke... PAN
Etxean bertan egindako pastelak

IGORRE
Lehendakari Agirre 11
94 656 65 52
Sabino Arana 35
94 657 3898
AREATZA
Goiko kalea 8
94 608 90 47

ARA OTZ
Landareen O Jabetzen!

RUGBY TABERNA

•Egin zaitetz bazkide!
•09:30etik zabalik
•Asteburretan pintxo bereziak

arratiko.zekorrak@gmail.com
http://santxisme.blogspot.com/

GOIKO GARBI
GARBIKETA BEREZIAK ETA MANTENIAK.

KEDARRAK, TXIMINIAK, KANALIOAK...

UDABERRIKO ESKAINTZAKI!
TXIMINIA GARBIKETA 69€ -BEZ
KANALOI GARBIKETA 3€ -BEZ

696 27 42 00
-MERKEA, AZKARRA ETA GARBIA-
www.goikogarbi.com

24h
EGUNEKO OGIA
vending pan
IGORRE
Lehendakari Agirre

FISIK
FISIOTERAPIA ETA ERREHABILITAZIO ZENTROA
Tel. 94 685 11 16
LEHENDAKARI AGIRRE 17 - IGORRE

OPEL

Ibaigane, s. Coop. Ltda.

Estazioa, 15
48330 LEMOA (Bizkaia)
Telf. 631 33 30 - 631 31 31
Fax 631 36 15

RAID

Orientazio proba Areatzan

Erredakzioa

Bagilearen 6an izango da aurten II. Up-O Rogaine, Arratia Raid taldeak eta Areatzako Lamino Mendi Taldeak antolatuten daben orientazio proba herrikoia. Igaz 62 lagunek hartu eban parte eta aurten 100 partaidetik gora izatea espero dabe antolatzaileak.

Proba oinez edo galapan egin daiteke eta ez da esperientziarik behar. Dana dala, hasibariak galdu ez daitezkan, orientazio ikastaro txiki bat prestatu dabe antolatzaileak bagilaren 4an, 18:30etik 19:30era.

Banaka edo taldeka hartu leiteke parte. Taldeak gehienez bost personak osotuko dabez. Proba 10:00etan hasiko da eta lau orduko iraupena izango dau. Ondoren, parrilladea egongo da indarrak berreskuratzeko.

Izena emoteko

Parte hartzeako, bagilearen 4ra arte emon daiteke izena Arratia Raid-en blogean, <http://arratia-raid.blogspot.com.es/2015/04/>



Kartela.

ii-up-o-rogaïne.html.

Hamar euroko prezioa dauka, baina mendian edo orientazioan federauta dagozanak edo AKKBko kide diranak, zortzi euro; euro bi eguneko segurua ordaintzeko dira eta.

Prezioaren barruan, mapak, kontrol txartelak, duxak eta ondorengo parrilladea dagoz.

FUTBOLA

Udalekuetan izena emoteko epea zabalik

Erredakzioa

Arratia Futbol Taldeak, umeentzako udalekuak antolatu ditu, aurten bosgarrenez, Igorreko Urbieta zelaian. 5 urtetik 12 urte bitarteko neska-mutikoak hartu leikie parte kanpusean, astebete zein aste bitan. Bagilaren 29tik garagarriaren 3ra edo eta garagarriaren 6tik, 10era izango dira eskolak, goizeko 09:30etik 14:00etara. Futbol udalekuetako helburuetako bat oporretan bekirola euskeraz praktiketea da.

Futbolaz gainera, beste kirol ekintza batzuek be antolatu ditue Arratia Futbol Taldekoak: mendi ibilaldiak, herri kirolak, igeriketea eta abar.

Inskripzio kuotaren barruan ekipazio osoa eta eguneko haiketako dagoz.

Informazio gehiago gura izan ezker 617 803 440 telefonoan edo futboludalekuak@cdarratia.com helbidean dago.

TXIRRINDULARITZEA

Alberto Hierro Euskadiko Master Txapeldun

Erredakzioa

Arbizuko III. Master Saria eta Euskadiko Master Txapelketea jokatu ziran Arbizon aprilean. Euskadiko Txapelketea, Dimako Tiritu taldeko Alberto Hierrok irabazi eban. Arbizuko lasterketan bigarren sartu zan Hierro, David Garciaen atzetik.

Arbizuko lasterketan Master Mailako puntako txirrindulariak egin ziran. Tiritu taldekoak karrera

ona egin eban. Hasi eta segiduan Jose Luis Dos Santosek eraso egin eta igesaldia egitea lortu eban. Alberto Hierro eta Aingeru Artetxe be egin ziran aurreko talde horretan. Esprint estu-estuan Ciclos Gamen-eko David Garcia nagusitu zan. Denpora berean gelditu eban kronometroa Alberto Hierrok, bigarren eginda. Holan, Tiritukoa Euskadiko txapeldun izan zan.



Alberto Hierro.



ARRATIA EKINEZ EGINA



EMAN BOTOA



HACER CRECER EUSKADI HAZI ARAZI

HISTORIA

Lau mendetako Zeberioko bizilagunak jaso ditu Perez Urrazak liburu bitan

Maiatzaren 7an, Kepa Perez Urrazak *Olabarrietako elizateko eta Zeberio Haraneko Auzokideen zerrendak eta Zeberio Haraneko sendien kokapena auzoka eta baserrika* liburuak aurkeztu eban. Liburuok atzen lauzpabost mendeetan zeharreko Zeberioko populazioaren gaineko ikerketa baten emoitzea dira.



Kepa Perez Urrazak liburuakaz.

Erredakzioa

Bertan, Zeberio haraneko personak identifiketan dira, auzo eta baserrietan lekutu eta euren arteko familia erlazinoak ezartzen dira. Lehenengo liburuan artxibo historikoetan dagozan auzokide zerrenda eta eroldak agertzen dira; bigarrenean, lehen liburuan agertutako auzokide horreek, 40 urte inguruko tarteguneetan bananduta auzoka eta baserrika kokatu egiten ditu egileak, bakotxa berean.

Liburuok egiteko erabilitako dokumentuak eta dokumentuon transkripzioak erakusketa bat be egon zan udaletxeko bigarren solairuan maiatzaren 7tik 9ra.

Ikerketa hau proiektu luzeago baten barruan sortu zan. Orain dala 15 urte Zeberioko Udalak mapa bat atera eban, Zeberioko baserri historikoen irudiakaz eta baserri batzuen datuak emonaz. Azken urteotan, 2012tik 2015era udalak argitaratutako egutegietan, eskola-umeak eta Zeberioko familien argazkiak berreskuratu dabez. "Filosofia bera da, sakonean asmo bera dago, eta da anonimatutik askatzea, ekartzea hor ezkutuan dagozan persona batzuk, argitara atera eta identitatea emotea" azaldu deutso BEGITURI Kepa Perez Urrazak.

Lan honetan 1458tik 1960ra arteko dokumentuen aitamenak jasoten dira. Dokumentuok hamar artxibo historikotan dagoz: Madrilako Artxibo Nazionala,

Simancaseko Artxibo Historikoa, Bilboko Jabetza Errolda, Bizkaiko Korrejimenduen Artxiboa, Derioko Eleiz Artxiboa eta Zeberioko Udal Artxiboa dira artxibo horreetako batzuk.

Baserri bakotxean bizi izan diranak

Dokumentu batzuetan ia larogei auzo bereiztu arren, egileak 25 auzunetan banandu dau Zeberio harana, erabilgarri egiteko. Eta auzunak hiru eremutan batu ditu; Helbarren, Herrigunea eta

Hergoien eremuetan, hain zuzen be.

Baserri bakotxean bizi ziran senar-emazteak eta seme-alabak agertzen dira. Baita aitita-amamak, zerbitzariak, jaube, errentadore, eskaleak... erroldetan agertzen diran guztiak. Baserri batzuetan 1630 urtean bizi ziranen ondorengoak bizi dira gaur egun be.

Lan honetan ia 400 baserri agertzen dira. Horreetatik 190 historikoak dira; batzuk XVI. mendekoak.

Non dago Maurizia?

Denpora tarreak 40 urte ingurukoak dira eta denpora horretan persona bat jaio eta beste nonora joan leiteke biziten. Adibide moduan, Maurizia Aldeiturriaga panderojolea ipini dau egileak. Baten bat haren datu bila hasi ezker, lehenengo joko dau 1900eko eroldara, "hor jaio barik egoan eta gero badator 1930ekora, hor be ez da agertzen Arteara ezkondu egoalako. Baina 1924ko eroldan agertzen dira bere gurasoak eta hemen, *Mauricia Aldeiturriaga Zabala 1904an* jaioa agertzen da. Horregaitik begiratu behar da liburu bietan, bai kokapen liburuan, baina baita erolda orokorretan be".

Lehenengo liburuan 374. orrialdean agertzen jaku Maurizia.



Ametzolako Aiesta Artiñano sendia. 1928. urte inguruan.

LEHIAKETEAK

Jaietako Kartel Lehiaketea abian**Erredakzioa**

Zabalik dago Lemoako jaietako Kartel Lehiaketea parte hartzeako epea, bagilaren 29ra arte. Lehiaketea, lemoaztarrak parte hartu ahal izango dabe eta kar-

telean "Lemoako jaiak 2015" inskripzioa agertu behar da. Kartelak udaletxean aurkeztu behar dira egilearen sinadura barik, eskuz edo ordenagailuz eginda A4 neurrian. Sari bi egongo dira 175 eurokoak.

TOPAKETEAK

Utopiaren inguruko eztabaidak Karabie Gaztetxean**Erredakzioa**

Maiatzaren 23an, 11:00etan, Arratiako kolektibo sozial batzuk batuko dira Lemoako Karabie Gaztetxean utopiaren inguruan hausnartu eta eztabaidatzera. "Eraiki dezagun gure utopia" lelopean, sistema hau salatu eta beste eredu bat aldarrikatuko dabe han batutakoak.

Gazteen artean utopiaren inguruan gehiago eztabaidatu behar ebela konturatu ziran Karabie Gaztetxeakoak. Horregaitik, militantzia eta norbanakoen egunerokotasunaren eredu barri bat eregiteko

antolatu dabe eztabaidagunea. "Ariketa personal eta kolektibo bat egiteko gogo sartu jaku, amesten dogun utopiarako bidean gidatuko gaituan ibilbide bat definiduteko momentua dala uste dogu... Behintzat saiatuko gara! eta bien bitartean alkar elikatu eta ikasiko dogu, ez doguna gura desikaste-ko!" dinoe.



TOPAKETEAK

Zaztaparrak-en begirale eguna**Erredakzioa**

Zaztaparrak Aisialdi Taldeak 20 urte beteten dauz aurten eta ospatuteko, taldean hain garrantzia handiko papela jokatuten daben begiraleen eguna antolatu dabe.

Maiatzaren 23an, talde honetako begiraleak eta begirale izandakoak batuko dira Igorreko Kultur Etxeko parkean arrastia alkarregaz pasetako. "Begiraleak hezitzaile bihurtu eta errespetuan eta askatasunean oinarritutako komunitatea eregi dabe. Asko daukie ospatuteko eta aspaldian alkarregaz egoteko tartetik ez dabenez hartu, 20 urte betetea atxakia ederra da" dino June Egileor Zaztaparrak taldekoak.

Begiraleak lauretan batuko dira alkarregaz ondo pasetako asmoz. Hauxe da egitaraua.

Egitaraua

Maiatzak 23, zapatua
16:00etan, elkartopaketak.
16:30ean, Zaztaolinpiadak.
19:00etan, Zaztadokumentala.
19:30ean, mokadutxoak.
20:00etan, Zaztapoteo musikatua.

ZINE KLUBA

Zine musikala "Musikaz Blai" zikloan Lasarten



24 Hour Party People.

Erredakzioa

"Musikaz Blai" titulupean hasi zan hilaren 14an Zine Klubak zine musikalarie eskeintzen deusan zikloa. Orduan, Tommy The Who taldearen musikala ikusteko aukera egon zan eta hamabostaldi honetan *24 Hour Party People* eta *20.000 days on earth* filmak ekarriko dabez Lasarte Aretora. Hilaren 21ean eta 28an, arrastiko zortziretan izango dira hurrengo saioak.

Tommyk hippy mundua erakusten baeban, *24 Hour Party People* (Michael Winterbottom, 2002) filmak Sex Pistols punk taldeak izan eban eragina erakusten dau. Tom Wilson filmeko protagonistek musika munduan sartu behar dala ebartziko dau Sex Pistols-en kontzertu bat ikusi ondoren. Lagunakaz batera, Factory diskoetxea sortu eta Hacienda izeneko diskoetxea ipiniko dauz martxan, talde barriari

(Joy Division, New Order, Happy Mondays...) ikusgai izateko aukera emoteko. Manchester uriko musika eszena guztiz irauli eben diskoetxe eta diskoteka horreek, eta film honek Manchester uria mundu mailan aurrendari bihurtu eban mobimentua erakusten dau. Steve Coogan, Paddy Considine eta Shirley Henderson dira film honetako aktore nagusiak.

Nick Cave-ren egun bat

Nicholas Edward Cave musikari, idazle eta aktore australiarren bizitzako 24 ordu kontetan dauz *20.000 days on earth* (Ian Forsyth eta Jane Pollard, 2014) pelikuleak. Aktore lanak Nick Cavek berak, Susie Cave-k, Warren Ellis-ek eta Kylie Minogue-k egiten dabez. Filmak errealitatea eta fikzioa nahastu egiten dauz eta Sundance-ko zinemaldian zuzendaritza onenari eta montaje onenari sariak jaso ebazan.

MUSIKEA

Gontzal Mendibilen kontzertua Igorren

Erredakzioa

Gontzal Mendibil kantari zeauriztarrak, *Zure bihotzak nire begiak ditu* bere azken diskoaren kantuak eskeiniko ditu zuzenean Igorreko Lasarte Aretoa, hilaren 23an, iluntzeko bederatziatan. Disko hau Areatzako plazan estreinau eban igaz egileak, hedabideetara aurkeztu eta Euskal Herriko beste plaza eta aretoetara eroan aurretik.

Zeanurikoaren lanik personalena da disko hau. Izan be, 11 kantu ditu eta horreetatik 8 kanturen hitzak bereak dira. Sentimentu handiko kantuak dira "norberak bizi eta sentidu izandako gaiak". Bizi eta sentiduteko guraria eta herri izatekoa dira kantu honeek landuten dabezan gaitako batzuk. "Nola liteke" kantua istrupuz hil zan Alex Angulo aktoreari de-

dikau eutsan.

Berrogei urteko ibilbidea

Nire bihotzak zure begiak ditu musika munduan 40 urte bete dituala ospatzeko sortu eban Gontzal Mendibilek.

Zeanuriztarrak 1975 urtean kaleratu eban bere lehenengo diskoa *Zaurietatik dario* titulupean. Gero etorri ziran *Egunsentiarri agur* (IZ, 1978), *Hasperen itun* (Elkar, 1983), *Egunen batean* (IZ, 1988), *Zu zeu* (IZ, 1990), *Iparragirre hegalaria* (Keinu, 1992), *Olentzaro* (Keinu, 1993), *Memoirian* (Keinu, 2001), *Elorri loratua* (Keinu, 2003), *Lágrimas al viento* (Keinu, 2004), *Zuri so* (2004), *30 urte* (Keinu, 2005), *Arrupe* (Keinu 2007), *Neure txiki polita* (Elkar, 2011) eta *Nire bihotzak zure begiak ditu* (2014).



Gontzal Mendibil.

EUSKERA

Areatzan euskeraz olgetako ekimena

Erredakzioa

Areatzako Euskera Batzordeak, jolasguneak euskalduntzeko, Olgau euskaraz! ekimena ipini dau abian Areatzako Gurasoen Elkarte eta Areatzako eskoleagaz alkarlanean. Ekimen honegaz ume eta gazteen arteko olgetako hizkuntza ohituretan eragin gura dabe. Ekintza hau maiatzaren 7an hasi zan Urtxintxako begiraleen gidaritzapean.

Euskera Batzordearen arabera, ez da gauza barria herrian umeak gaztekeraz olgetan entzutea. Eskolako irakasleak be honetaz konturatu dira eta gaztekerarako saltoa gero eta arinago egiten dabela esaten dabe. Gurasoak be ados dagoz eta honeri konponbidea emoteko antolatu dabe ekintza hau.

Olgau euskaraz! ekimena Areatzako umeak euskerazko joko eta abestiak ikasteko da. Holan, ohiturak sortu eta aurrerantzean be, olgau euskeraz egin dagien. Gurasoak be sano papel garrantzitsua jokatuten dabela eretxita, umeakaz batera ekimen honen protagonista dira. Eta abestiak eta jolasak ikasteaz aparte, euren txikitako jolasak erakutsi ahalko deutseez umei.

Ekimenak irauten dauzan bost asteak amaitutakoan, hilean bitan alkartuko dira gurasoak eta umeak begirale barik.

DUNBA

Garitano euskerearen alde

Igorreko Inazio Zubizarreta ikastetxeko 6. A mailako ikasleak

Azken egunotan, zer esan asko emon dau Gaizka Garitanok (Eibar futbol taldeko entrenatzailea)

oraintsu emondako prensurrekoak. Eibarrek Almeriaren kontra 2-0 galdu osteko prensurrekoan euskal kazetari batek Garitanori lehen galdera euskeraz egitean, honek hizkuntza berean erantzun eutsan.



Gaizka Garitano.



6. mailako ikasleak.

Hau dala eta, Almeriako kazetari batzuk keinuka eta kejaka hasi ziran. Komunikabideetako arduradunak ohartarazo eutsen jarraian gaztelaniara itzuliko ebal, baina entrenatzaileak, etenaldi baten ostean, bere horretan jarraitzean, barriro arpegi txarrak eta protestak

errepikatu ziran. Honen aurrean, entrenatzaileak, irainduta sentitzean, aulkitik altxau eta prensa-gelatik alde egin eban. Jarrera hau batzuek kritikau dabe, eta beste askok gorapatu. Euskaldunon artean, esate baterako, guztiz txalotua izan da ze guztiona



dan ondareari eraso egin jako, euskerari hain zuzen be.

Egia da, dana dala, Almeriako prensa arduradunaren jokaerea txalagarria izan dala, eta baita ETBko kazetariarena be, bigarrenen be euskeraz galdetzeagaitik.

Gure partetik be eskerrak emoten deusaguz Gaizka Garitanori euki dauan jokaeragaitik, eta ea lagungarria dan horrelakoak bariz ez gertatzeko, ez Almerian, ez hemen, ez inon.

"Zaindu dezagun beti maite dugun hori".

AGENDEA

MAIATZAK 18
ARANTZAZU

17:00etan, eta hilaren 20ra arte, botika bedarren gaineko ikastaroa erabilera askotako gelan. Arantzazuko Zabalik andra alkarteak antolatuta.

BEDIA

17:00etatik 20:00etara, bagilearen 15era arte, jaietako paella egunean parte hartzeako izen emotea. Liburutegian.

IGORRE

Ezaguera konszientea bakoxaren berezko sortze-prozesuan erakusketea. Hilaren 31ra arte egongo da Kultur Etxean.

Arratia Futbol Taldeak antolatutako udalekuean izena emoteko epea zabalik. Ikusi 11. orrialdea.

16:45ean, emakumeen arteko topaketa interkulturalak

LEMOA

Hilaren 29ra arte, Euskal Jairako txartelak udalekuean salgai. (Euskal Jaia bagilearen 6an).

MAIATZAK 20
ARRATIA

Gaztedi Arratia programeak ateratako Arratiako enpresetan behar egiteko bekea lortzeako izen emotea zabalik bagilearen 10era arte. 18-25 urte bitartekoentzat.

DIMA

18:30ean, Lomce eta Heziberriren gaineko mahai-ingurua Dimako eskolan. Hizlariak: Aitor Idigoras (STEE-EILAS), Merve Nabaridas (LAB), Xabier Irastorza (ELA) eta Eli Zubiaga (Sortzen). Moderatzailea: Ainhoa Baraiaetxaburu.

MAIATZAK 21
IGORRE

20:00etan, zine kluba 24 hour party people (Michael Winterbottom, 2002). Lasarte Aretoan.

MAIATZAK 22
LEMOA

20:00etan, kamiseten irudi aukeraketea. Proposamenai botoa emoteko atzen eguna. Karabie Gaztetxean.

MAIATZAK 23

AREATZA

18:00etan Trapuzko Pelota Txapelketako partiduak frontoian. AKKBk antolatuta.

20:00etan, Nevadaren kontzertua The Quiet Comer-en.

BEDIA

10:30ean urtekera Bediatik txorien etxeboak

begirtzeko. Plazan.

IGORRE

16:00etan, Zazparrak-en begirale topaketak Igorreko Kultur Etxeko parkean, euria bada Gaztetxean.

21:00etan, Gontzal Mendibilen kontzertua Lasarte Aretoan.

LEMOA

11:00etan, Amets iraultzaileen eztabaidagunea

Saharako egoerearen gaineko
berbaldia Igorreko Kultur Etxean

Maiatzaren 27an, arrastiko zazpiretan, Ahmed Ettanji, "Giza Eskubideen aldeko burruka Saharako lurralde okupatueta" izeneko berbaldia egingo dau.

Ahmed Ettanji kazetaria lurralde okupatueta bizi da eta *Equipe Median* egiten dau behar. Talde honetako kazetariak Saharako lurralde okupatueta giza eskubideen urraketea salatuten dabe internet eta sare sozialak erabiliz. Munduari testigantza hau emoteko euren bizitzak arriskuan ipinita.

Karabie Gaztetxean.

20:00etan, Lemoako Abesbatzaren Udabarriko kontzertua Andra Mari Eleizan. Galdakaoko Maximo Moreno Abesbatza, Orfeon Durangues eta Lemoako Abesbatza.

ZEBERIO

Austari Mendi Taldeak antolatuta, Zeberioko Mugarik Muga. Ikusi 10. orrialdea.

MAIATZAK 24

BEDIA

08:00etan, Ganguren Mendi Taldeak ume eta gazteentzako urtekera. Mirandaola Burdinola-Gorosiaga (951 m.).

ZEBERIO

20:00etan, zinea *Hysteria*. Udalekueko 2. solairuan.

MAIATZAK 25

DIMA

17:30ean eta hilaren 27ra arte, Euskal Herriko sendabedarren oinarriko ikastaroa. Lehengo KZ gunean, liburutegiko portalean. Mari Feli Prietoren eskutik.

IGORRE

16:45ean, emakumeen arteko topaketa interkulturalak.

MAIATZAK 26

DIMA

19:00etan, Dimako Bardintan Mahaitxoak antolatuta, andren eta gizonen osasunaren gaineko berbaldia Osakidetzaren eskutik "Bardin gaixotzen gara?" Jubiladuen lokalean.

MAIATZAK 27

DIMA

17:30ean "Kulunkantauri: Itsaso gazitik ipuin gozoak". Ibai Eoainen eskutik. Berbaldia "Umorea gauza serioa da" Aste Kulturalaren barruan eskolan. Guraso Elkarteak antolatuta.

MAIATZAK 28

IGORRE

20:00etan, zine kluba *20.000 days on earth* (Ian Forsyth, Jane Pollard 2014). Lasarte Aretoan.

MAIATZAK 29

DIMA

20:00etan Aitor Neberedaren berbaldia "Munduak buelta eman zidan" Liburutegian. Ondoren

herrialde desbardinatuko pintxoak.

IGORRE/LEMOA/ZEBERIO

19:30ean, atzen barikua preso eta errepresaliaduen aldeko konzentrazioa.

LEMOA

16:30etik 19:00etara, Lemoako Euskara Zerbitzuak eta ludotekeak antolatuta, "Parkeak euskaldundu, kalea hartuz" eskolan.

MAIATZAK 30

AREATZA

18:00etan Trapuzko Pelota Txapelketako partiduak frontoian. AKKBk antolatuta.

BEDIA

09:30ean, Getariako Balentziaga Museora urtekera.

Athletic-en Kopako finaleko partiduak pantaila erraldoian plazan. (Eguraldia txarra bada, ludoteketan).

DIMA

11:30ean frontoi handian puzgarriak eta tailerrak. 13:30ean plazan balkoitik balkoira bertsotan. 14:30ean bertso bazkaria Unai Iturriaga eta Igor Ertza. Luis Prieto Lagunartek antolatuta.

17:30ean, arpegiak margoztu Athletic-eko finala dala eta. Ondoren Bostembor taldearen kontzertua Ugabua tabernan. Finala ikusteko pantaila erraldoia egongo da.

LEMOA

Ganzabal Mendi Taldeak umeen urtekera Aia/Murugil (717 m.)-Iturraren lorategi botanikora bisitatu.

MAIATZAK 31

ARRATIA

Arratiako XXXVI. Maratoni Txikia. Ikusi 10. orrialdea.

DIMA

09:30ean eskoletan. Mendi urtekera. Baltzola-Indusi. Guraso Elkarteak antolatuta.

IGORRE

17:00etan, umeentzako zinea *La oveja Shaun*; 19:30ean, zinea *La dama de oro*. Lasarte Aretoan.

LEMOA

Ganzabal Mendi Taldeak antolatuta, urtekera Pinioetara.

BAGILAK 1

BEDIA

17:00etan, bagilearen 12ra arte, sanjuanetan play back-ean parte hartzeako eta txosnetan laguntzeko izen emotea. Liburutegian.

IRAGARKI LABURRAK

SALDU

PISUA SALGAI

Pisua salgai Artea. Bizitza sartzeko moduan. Eguzkitsua. Deitu 665 739 936 telefonora.

PISUA SALGAI

Igorren. 3 logela, saloia, komuna eta sukaldia. Bizitza sartzeko moduan. Sano-sano argitsua eta eguzkitsua. Kalerantza emoten dau. 115.000 eurotan. Deitu 677 951 606 (Iru).

HOZKAILUA SALGAI

Hozkailua furgoneta zein karabanarako. Ia barria, hile bitan erabilita. 630 419 476 edo 94 631 71 45 telefonora deitu. Rosa (Artea).

TRIKITIXEA SALGAI

Zero Zetto markakoa. Profesionala, 4 abotsetakoa. Si bemolen afinauta. Baltza. Primeran dago. 1500 eurotan, dendan baino 900 euro merkeago. Telefona 677 951 606.

DANERIK

BEHAR BILA

Etxeko beharrak eta garbiketarak egiten dodaz. Kobeduna 658 591 307.

PINTURA IRAKASLE BILA

Norbait prest egongo balitz pintura irakasteko

eskola orduetatik kanpo Igorre aldean 10 urteko neska pare bateri, seguru konponduko garala. Interesatuak lcbilbao@gmail.com erabili, mesedez.

ETXEAK EDO GELAK ALOKAIURUAN

Conil de la Fronteran etxeak zein gelak alokatzen dira. 647 126 074 Rosario.

BASERRIRAKO LAGUN BILA

Baserrian bizitzeko lagun bila nabil (Zeberio). Bilbotik ordu erdira eta herrigunetik (denda, mediku, taberna...) 10 minutura oinez. 200 euro personako, gastuak barne. Interesatuak deitu 687 338 515 telefonora.

PISUA ALOKATZEN DA

3 gela, bainu bi, saloi handia. Altzariak ditu. 629 716 764.

Zeozer saldu, erosi, alokatu, trukea egin, behar edo behargin bila bazagoz, bidali asko jota 25 berbako mezu bat. begitu@topagunea.com-era. Mezuak doban dira.

Begitu-lagunen txokoa

Zenbaki honetako saridunak:

1 Igorreko Kultur Etxeak emondako bina sarrera Gontzal Mendibilen kontzerturako.

Iratxe Etxebarria (Igorre)
Unai Santos (Lemoa)



2 Igorreko Kultur Etxeak emondako bina sarrera Tor Magoaren ikuskizunerako.

Izaskun Arregi (Zeanuri)
Miriam Abasolo (Artea)



3 Zerturen argitalpenak jasoko dozuz,

zozketetan sartuko zara.

BEGITUK 13


urte eta

ehundaka

lagun.

DENPORA-PASA

IMAN OLATU




EZKERRETIK ESKOIERA


1.- Boroa. Lepondo. 2.- Osmioa. Ertz, bazter. 3.- Berrogeta hamar erromatar. Gailur, tontor. 4.- Inola. 5.- Bokala. Letra bat. Nitrogenoa. Konsonantea. 6.- Entzute, ospe. 7.- Asko. Letra bat. 8.- Akabo. Kanpo. 9.- Multea. Uranioa.

GOITIK BEHERA

1.- Borobila da. (Atz.) ...mika, eztabaida. 2.- "Solo" berbeak dauka. Azken letrea. Edabe usaintsu. 3.- Konsonantea. Pausatu. 4.- Taula. Tratu. 5.- Itxura, antz. Bokala. 6.- Erru. Letra bat. Bokala. 7.- Birritan, pulsuaren hotsa. Prest.




Topau jatorduetan mahaian normalean ipinten diran zazpi gauzaren izenak.



AKI MI KO

Iman Olatu



umoon moda
seim
0-16
Agirre Lehendakaria, 31 • 48140 IGORRE
Tfnoa. 94 631 92 96 • seimoda@hotmail.com

Orrie
FOTOKOPIAK - PAPERDENDA
L. Agirre, 2.
48140 Igorre (Bizkaia) Tfnoa.: 94 673 64 75

NAIARA Hertz Klinika
Lehendakari Agirre, 19
48140 Igorre
94 631 52 26

AKESOLO, S.A.
GARRAIOAK, NEUMATIKOAK ETA ZERBITZUAK
Garbe, 29 Tfnoa: 94 673 60 14 IGORRE-BIZKAIA

Recreativos Gubi S.L.
Angel Larrea
Zornotza Tfnoa 649 86 95 36

Los Chopos
neurri egindako armairuak
Arda, Los Chopos, 55 (Nigar) Tel.: 94 430 40 94
Esposizinoa eta fabrika Lemoan
Pozueta poligonoa, Lemoa 94 631 34 44
www.armariosloschopos.com

GARANTXE Autoeskola
TEORIA EUSKARAZ ZEIN ERDARAZ
Balneario: A1, A, B77, 8
Lehendakari Agirre 31
Tfnoa.: 94 673 71 32
48140 IGORRE (Bizkaia)
garantxe@vodafone.net

AKEITEGIA
GAY & LORA
IGORRE

AHOLKULARITZA:
LEGEAN ARLOAN
ZUZENBIDE
ZERGA ETA DERU KONTUTAN
ONDASUN HIGEEZINEN
ASIGURUTAN
Balboa Arana, 3 Tfnoa: 94 673 71 41 - Faxa: 94 673 94 41 - 48140 IGORRE

BIXER TABERNA
Beko kalea, 2 - Tel. 94 631 73 65 - VILLARDO

Jose Luis Corbacho
pintura lanak
Sabino Arana, 3. 3a 94-673-70-87
Igorre 48140 Bizkaia 609-79-40-54

KIRRU ILEAPANDEGIA SOLARIUM
Roberto eta Rosana
Sabino Arana, 38 baxo - 48140 IGORRE (Bizkaia)
94 631 92 06

Pinturas Aratia
Javi Morato
Tel. 628 443 992

ARRATIA AUTOESKOLA
karneta euskaraz zein erdaraz
Garbe, 10 - 48140 Igorre (Bizkaia)
Telefona 94 631 36 31 Faxa 94 673 70 80
e-posta: vnozalu@euskatel.net

ZUZTARRAK BERTON EUTSITA, ADARRAK MUNDURA ZABALIK, GURE ESKUALDEA GARATZEKO.

AEROSPACE

AUTOMOTIVE

ENERGY

 **BATZ**

Torrea, 2
48140 IGORRE
www.batz.eus

 **MONDRAGON**  HUMANITY
AT WORK